

Yon Etxaideri elkar rizk eta

*

JOSEBA ETXARRI

*



Ez da gizon erraza, ez, Yon Etxaide», iratzi genuen orain dela hamabi bat urte iskribari donostiarraren elkarrizketa Eguna astekarian argitara eman genuenean. Kazetari gaztetxo eta hasiberri ginen orduan, eta gure amak haren emaztearekin daukan adiskidetasuna baliatu genuen Etxaiderekin harremandu eta bere etxean har gintzan, ezaguna baita ez zituela berak kazetariak batere maitte eta hartua zuela ordurako sekula santa kazetari gehiago ez errezibitzeko erabakia (aukera probetxatuz, beraz, mila esker Pilartxori eta amari).

Hitzordua erdietsi eta agertu ginen Etxaideren etxean, Donostiako Colon pasealekuan. Agertu orduko ohartu ginen elkarrizketa hura aurretik beste inorekin egindakoengandik diferentea izango zela. Gu koaderno eta grabagailuz agertu eta hainbat minutuz solastu ostean —eta, nonbait, solasean zehar bere onspena lortu ostean— konpreniarazi zigun Etxaidek elkarrizketak zernahi gisaz idatzia behar zuela izan eta aski genuela galderak uztea eta deituko zigula haiek idatziz erantzundakoan. Beste baldintzarik ere bazen: oso-osorik eta hitzez hitz berak izkiriatu legez behar genuen argitaratu, koma bat emendatu edo kendu gabe, azpimarratu zigunez. Guk halaxe agindu. Handik aste batzuetara telefonatu eta helarazi zigun galdetegia, bere erantzunekin.

▮ Joseba Etxarri kazetaria da.

Tabloide tankerakoa zen Eguna-ren erdiko orrialdeak geneuzkan pentsatuta elkarrizketaren emateko, kazeta bateko bi orrialde oso alegia. Gure bozkario, bere erantzunek makinaz idatzitako hogeita bi orrialde hartu zituzten. Sorpresa polita, agindutakotik haratago bere burua biluztu eta bera ulertzeko barne-gako guztiak bildu baitzituen solasaldira, emendatu zigularik «behin-betirakoa» zela eta ondolik ez zuela elkarrizketa gehiagorik emanen. Hori pagotxa guretzat! Berehala, kazetari elkarrizketatzaileak negoziatzen hasi behar izan zuen Eguna-ko zuzendaritzarekin argitaratzeko moduari buruz, elkarrizketak argazkiak eta guzti egunkariko sei-zazpi orrialde har baitzitzakeen eta, beraz, plazaratzeko une eta modu egokiena atxeman behar baitzen.

Aste batzuk joan ziren horretan, aski Yon Etxaidek bere erantzunak berrirakurtzeko eta zenbait gauza moldatu eta emendatu behar zirela deliberatzeko. Izan ere, hori zen Etxaideren ezaugarrietako bat: ez zen idatzitakoarekin sekula asebetetzen: berrirakurri, eta beti topatzen zuen molda edo bere ustez hobe zitekeen zerbait. Aukera emanez gero, hori behin, birritan, lau, hamar, hogeit aldiz gerta zitekeen, eta beti atxematen zuen, argitaratu ondoren ere, zer alda eta zer molda. Esan ohi da idazleak obra bat argitaratu ondoren, obra publikoarena, irakurleena bilakatzen dela eta bizitza propioa hartzen duela autorearengandik aparte. Etxaide perfekzionista zinez amorratua izanik, halakorik ez zen posible bere kasuan, bere liburuen edizio desberdinak hala izan baitira, desberdinak, aldaketak medio izenburu bereko bertsio berriak bilakatu arte.

Berezia izanik, pertsona onesta zen Etxaide, jatorra, eta hala portatu ohi zen gurekin bederen. Pentsamolde ezkorrak arras baldintzapetutako pertsona, giristino eta aber-tzalea zen, sutsua, hori ere ezaugarri baitzeukan, berak aitortzen zuen inferioritate konplexuak eraginik beharbada. Ez zuen bizitzea maite eta presondegitzat zeukan bizia, kastigu eta infernutzat. Giristino izateak ekarri zion argiprintzik iluntasun horretan, eta ameslari eta erromantikotzat ere jotzen zuen bere burua, aberri eta gizarte gaiei zegokienean. Bere barruko edo buruko muga egiazko edo ale-

giazkoen torturapean bizi izan zen txiki-txikitandik, eta aitaren figurak marka handia utzi zion zenbait arlotan. Yon Etxaideren (kostata, baina ikasi genuen, Yon, halaxe izkiri-riatua nahi zenuela zure izena), bere barne mundua eta pentsamoldea ezagutzeko berebiziko dokumentua da honakoa, idazleak berak gure eskuetan ipinia. Bere eta gure hitza errespetatuz plazaratzen dugu Jakin-en, leku arazoak zirela-eta aurreko argitaraldian bera ados argitara eman ez ziren bi galderatxo ere barne.

Nola eta zergatik ekin zenion idazteari? Zergatik euskaraz?

Begira, enebaitan fenomenu bitxi samar bat gertatu zen. Neure lehen mintzaira euskara izan nuen eta zazpi urte bete arte hutsaren urrengoa nekien gaztelaniaz. Neure senideek nik baino gehiago zekiten, saiatu egiten baitziren ikasten. Baina nik ez nuen ikasi nahi. Txipitandik hizkuntza bat ikasi nuen eta hori zen neurea. Gero etorri zen gaztelera, baina hori ez zen neurea eta higuina hartu nion. Artean ez zen euskaraganako amodiorik sortu enebaitan. Baina euskara neurea zen, ezaguera nuenetik hitz egin bainuen. Zertarako behar nuen besterik? Ene ama gaixoa desesperatzen zen erdararen aurrerapenik egiten ez nuelako. Jakina, nola ikasiko nuen? Nik ez nuen ahalegirik egiten eta aitak ez zuen ametitzen hitzik ere erdaraz esatea familian. Aita ez zen kezkatzen gaztelaniaz gaizki egiten nuelako, sobra baitzekien erdara igarri gabe ikasiko nuela ikastetxera joan bezain laster. Problema euskarari eustea zen eta aitak nahiko lana bazuen euskaraz hobetoxeago eginarazten, zeren amagandik ikasi genuen euskara oso txarra baitzen, aita bezala euskaldun berria zelako, euskararentzako amodio bereizirik ez zuena eta batere saiatzen ez zena ongi ikasten. Beraz, egia hauxe da: nik txipitan euskaraz oso gaizki egiten nuen (amaren euskara) eta erdaraz ez nuen ikasi nahi. Adibide bezala esanen dizut, aditz bat bakarra pluralizatzen ez genekiela ama-senideok; indikatiboaz eta inperatiboaz kanpo ia aditz jokorik ezagutzen ez genuela. Esaterako: ninteke, zintezke, liteke, gintezke, zintezkete, litezke esateko, «liteke» aski genuen. Horrek mirari guztiak egiteko balio zigun. Orobat transiti-boan: «lezake» erabiltzen genuen denetarako eta kitto. Horrekin moldatzen ginen. Gero, jakina, «nik ekar dezadan» eta abar esateko, betiko formula: nik ekartzeko. Baina hau bezain okerra gure amaren erdal-mentalitatea ires-tea izan zen. Beraz, azalez euskaraz egiten genuen, baina mamiz erdara genuen egiten. Hauxe nahaste-borrastea! Baina, aita euskal-problema kezkatzen zuen bezala, ama erdal-problema kezkatzen zuen, nirekiko bederen. Or-

duan, nirekin karrerarik ezin atera zuela-ta, amak, aitaren ezkutuan, argazki-makina bat agindu zidan oparitzat, baldin-eta hilabete batean berarekin bakarka gazteleraz egiten banuen. Eta kontu gero aitari ezer esan, honek ez baitzuen ametituko amarekiko tratua. Nik, makinaren gutiziaz, onartu nuen tratua, baina ez nuen astebetetik gora asko iraun. Nire amari ezin egin gaztelaniaz! Makinaren oparia zakurraren ipurdira bota nuen eta ez nion gehiago amari hitzik egin erdaraz bizi izan zen artean. Bainan, aitak igarri zion bezala, marianistetan eta jesuitetan euskaraz baino hobeki ikasi nuen erdaraz. Horixe bai, euskaldunekin euskaraz egiten nuen eskuarki bi ikastetxe hauetan.

Euskaltzaletzen noiz hasi nintzen? Esango nuke Agiñagako Galardi-Azpia baserri maitagarrian. Aitak, udak pasatzeko erosi zuen baserri hau, hiru asmo nagusi zituelarik buruan: guri kanpoa eta natura maitarazten erakutsi, gure euskara jatortu eta hobetu, eta Donostiako hondartza madarikatuari ihes egin, deabruak, emakume gutxi-jantzien antz-irudipean, gal ez gindezaten. Horra ba, ni Galardi-Azpian konturatzen hasi nintzen, guk eta auzoko baserritar maizterrek egiten zuten euskara ez zela berdina eta hango haur gazteenakin jostatzen eta eurekin sorora, belar ebatera, ukuilura (behiak jaitsi, azpiak egin edo jate-nak eman garaian), Lasaoko erredera edo etxe hurbileko askara (behiak edanaraztera) gogotsu joaten nintzelarik, euren hizketa moduaz kutsatzen hasi nintzen eta beren gisa egiten. Orduan konturatzen hasi nintzen euskara jatorra zer zen eta, esango nuke, zinez euskaltzaletzen. Handik aurrera, ohartuz, gure neskameek ere baserrikoen gisa hitzegiten zutela (baserritarrak baitziren, izan ere), hauen-gandik ikasten saiatu nintzen eta ikasi ere asko ikasi nuen, batez ere euskal-mentalitate baten jabe egiten. Horra, beraz, neure euskaltzaletasuna martxan. Aitak igarri zion nire euskal-gogo sutsuari, zeren ongi hitzegiteko gogoaz gainera, harrapatzen nituen euskal-liburu guztiak iresten hasi bainintzen, *Poxpolin* haur-aldizkariak, *Argia* asterokoak eta *El Día* egunerokoaren euskal-atalaz gainera, gure aita hiru publikazio hauetara harpidetua baitzegoen hala nola *La Constancia* eta *El Siglo Futuro* integrista-

tradizionalistetara eta *El Debate* Gil-Roblestar delakora. Baina *Argia*-k eta *El Día*-k, euskaltzaletu ez-ezik abertzaletu egin ninduten hezurretaraino. Gogoratzen naiz gure «Aitzol» ahantzi-ezinaren artikulua txoraturik irakurtzen nituela, nahiz gartzelaniaz izan. Horra, bada, nondik eta nola, berez bazetorren ere, neure aita integristari zor diodan parte batean, neure bizitza guztiko abertzale izatea. Baina, goazen gurera: Aitak hain euskaltzale somatzen ninduelarik (uste dut urtebeteko epean hiru aldiz irakurri nuela *Garoa*), neure hamabost urtetan euskaraz izkiriatzera animatu ninduen. Baina nola? —erantzun nion nik—, ez baldin badakit izkiriitzen eta ez baldin badakit zertaz izkiri! Berak lagunduko zidala eta zertaz iskriba ez banekien, itzultzen has nintekeela. Eta halako batean esan zidan: badut zuretzako itzulgaia (gure etxean ez zen sekula hiketarik egin. Guk gurasoei beorika eta gurasoek guri zuka. Hiketa oinarriak Agiñagako baserritarrei entzunaz ikasi nituen): *Las aventuras de Till Eulenspiegel* eta *La Cruz aseteroko* (katolikoan) argitaratzen hasiko zara. *Till Eulenspiegelen biurrikeriak* ezarri genion izenburutzat eta hasi nintzen neure itzultzaile lanean, izerdi ederrak kostata, zeren joskera dela-ta, zeharo alderantzizkoa gartzelaratik euskarara, buruauste ikaragarriak sortzen baitzitzaizkidan. Korapilorik gogorrenetan aitarengana jotzen nuen eta azken zuzenketa berak egiten zidan. Eta, horrelaxe, poliki-poliki, erreztasuna eta gustoa hartu nion eta pozik niarduen neure lanean. Eta argitaratua ikustean, zer poza neurea! Las-ter, pozoitzeraino zaletu nintzen eta ez nengoen nire lana uztekotan.

Baina, utzi behar izan nuen amaitu gabe, gure gerla madarikatua sortu zelarik. Neure euskal-irazole bokazioa gauetik goizera abortatua izan zen. Noiz arte? Urteak joan ziren, baina neure gogoia martxan zegoen eta inon ezin argitaratu banuen ere, hasi nintzen gerla amaitu baino lehen Campiónen *Narraciones Baskas* delakoak eta beste itzultzen. Beraz, «zergatik euskaraz»? Euskara jazarria, ostikopetua eta mespretxatua maitatu nuen bezala, gartzelania menperatzailea gorrotatu nuelako neure abertzale suaren eraginaz.

Zein eragin izan zuen gerlak zugan? Bildurtu egin al zintuen?

Gerlak gure amets, ilusio eta itxaropen guztiak moztu zituen. Adio euskara, adio eskurabidean genuen Araudia (Estatutua), adio eusko-abertzaletasuna. Ikaragarriko kolpea izan zen euskaltzale eta abertzale sentitzen ginentzat. Nik hamasei urte nituen eta hortxe ari nintzen arrastaka batxileratua ezin menderatuz. Adimenduz motz nintzen (eta naiz) eta ez nuen balio estudiantzeko. Hala ere neurebiziko ahaleginak egin nituen batxileratua bukatzeko. Baina neure aitak ez zuen horrela uste. Ez zitzaion buruan kabitzen bere seme bat adimen-urriko izan zitekeenik —bera ikaragarri intelijentea baitzen— eta estudiantarako neure frakasoaren kausa nire interesik ezan eta alferkerian bilatzen zuen. Beraz, gerla aurreko udan erabaki zuen, onean nahi ez banuen, txarrean estudiaraztea. Hau delata, ikaragarriko neurriak hartu zituen nirekiko 1935-eko udaldian, bere ustean, nire onez. Goizean, beti bezala, Donostiara joango nintzen trenez (gogoan har Agiñagako Galardi-Azpia baserrian bizi ginela udako partez) ekainean suspenditutako asignaturen (denak edo ia denak) klaseak ematera Mari Paz Otegi (ez naiz ziur Otegi ala Otaegi otezen) andereñoarekin. Baina arratsaldean lezio guztiak nire anaia zaharrenari eman beharko nizkion eta ikasten ez nuen artean ez nintzen neure logelatik aterako, eta lotara joaterako lezioak ikasiak ez banituen, ez nuen nire ohean lo egingo, jangelako lur-zolako baldosa hotzen gainean baizik. Ez zen niretzat errukirik eta barkapenik izan uda ikaragarri hartan. Zenbat negar egin nuen! Nahi nuen estudiantu, baina ezin, nire buru gogorrean ez baitziren lezioak sartzen. Uste dut —enaiz oroitzen— manta bat ematen zidatela biltzeko, baina horixe zen guztia. Hala ere, lurrean lo egiten baino gehiago sufritzen nuen estudiantzen, nire senide guztiak baserri atarian eta inguruetan jostatzen ari egualdi zoragarriekin eta ni neure gelan preso egun bat eta beste, negar eta negar eginaz. Galardi-Azpiko uda dohakabe hura ez zait sekula ahaztuko. Heldu ziren Iraileko azterketak Institutoan eta betiko frakaso.

Ekaina eta Iraila artean bizpahiru edo hiruzpalau asignatura aprobaten banituen, pozik. Horrela, urtetan atzeratuz nihoan eta ezin nituen ikastetxe batean jarraitu klaseak. Mari Paz Otegi (Jaungoikoak betiko atsedenean dezala) izan zen nire irakasle martirea. Bere pazientzia izugarriaz lortu zuen, asignaturaz-asignatura, batxileratoa buka nezala 19 urtekin, 16-kin amaitu behar nuenean normalki. Nire aita, ordea, uste dut konbentzitu zela ez nuela estudiantzeko balio, zeren, aurrerakoan ez baitzuen gehiago horrelako sistemarik erabili nirekin. Baina, horixe bai, enpeñatu zen karrera estudiatu behar nuela, eta berak erabaki zuen zer estudiatu behar nuen (nik ez bainuen ezertarako joerarik eta gogorik): Perito Agrícola, alegia, zeren-eta, baserritarrekin tratatzea zenez neure gustua, hau bainuen karrerarik egokiena. Baina, baserritarrekin tratatzeko Aritmetika, Geometria, Algebra, Trigonometria, Fisika, Kimika goi-mailakoak eta abar estudiatu behar nituen. Total, bi urte galdu nituen eta dibujoa besterik ez nuen aprobatu. Ni etsia eta jota nengoen; nahiago nuen akabatuko banindute, eta ez nuen gehiago estudiatu beharrik eta mundu triste honetan sufritu beharrik izango. Gurasoek ere ez zekiten nirekin zer egin eta, etsirik, erabaki zuten delineante ikas nezala.

Horrela, bada, 1936-ko udan ere, goizetan klaseak ematera etortzen nintzen Donostiara, eta gogoratzen naiz, bonbardeo abisuko sirenek jotzen zutenean (bonbardeoak ontzizkoak izaten ziren; *España* eta *Almirante Cervera* kruzeroak jarduten ziren lan kriminal honetan) bere etxe-bizitzatik sotanura jaisten ginela, baina, egia esan, nire hamasei urtekin ez nuen bildurrik pasatzen. Horixe bai, politikaz suelto diskutitzen genuen Mari Paz eta biok orduan eta gero. Bera, karlista baitzen, «nazionalen» alde eta ni haien kontra eta abertzaleen alde. Gogoratzen naiz, «nazionalak» Donostian sartu eta laster esan zidala: «El nacionalismo no volverá a levantar cabeza». Gaixoak ez zekien eusko abertzaletasuna zer den. Baina Mari Paz txit emakume ona zen, ez ginen behinere haseurretzen ideia liferentetakoak ginelako eta asko maite genuen elkar. Batxileratoa berari zor diot. Horixe bai, nire-

tzat Institutura esaminatzera joatea mataderura joatea bezala zen. Nik pasatzen nituen larrikarak eta axanpak Jaungoikoak bakarrik dakizki!

Gainerakoan, milizianoak, hiru bider izan genituen gure baserrian: bitan patatak errekiatzera joanda eta hirugarrenez Arratzaingo erretiradan Galardi-Azpiko baserri-lurretan sartu ziren eta tiroak ez ziren urruti ibili. Hauxe da nik Espainiako gerla zibilaz edo «inzibilaz», gure Unamuno ospetsuak deitu zion bezala, ezagutu nuen guztia. Nire bi anaia zaharrenak gerlan ibili ziren, baina ni juxtu-juxtuan libratu nintzen. Ebroko gudaldira joateko zorian egon nintzen, baina ez nintzen joan, zeren 1941-eko kintakoa nintzenez —mobilizatueta gazteenak, 18 urtekoak—, gerlara joan beharra bainuen. «Guarda rural» delakoen bitartez etorri zitzaidan inkorporazio agindua. «Guarda rural»-ok ez zekarten berri onik guretzat, zeren frankistak Donostian sartu eta laster, etxearen izena kentzeko aginduz heldu baitziren. Bai horixe! *Aldatzain* baitzuen izena gure Donostiako xaletak eta «tz» «separatista» zenez gero, Orden berriak ezin zuen onartu. Beraz, euskal-izena zuten xalet guziek izenez edo ortografiaz bederen aldatu behar zuten. Gure aitak ez zuen obeditu lehendabiziko aginduan eta bigarrenez etorri ziren mehatxuka. Orduan aitak niri letrerua kentzeko esan zidan. Hamar-hamabi urte barrru, ikaraldia pasa zenean, neronek jarri nuen berriro aitarren aginduz. Honetaz eta gerlako beste mila kontuz, atera berri den *Etxaide jauna* ene liburuan hitzegiten da zabalki. Baina, goazen gurera; ni gerlara joatetik libratu egin nintzen. Izan ere, lege bat eman baitzen bi anaia frentean zeuzkanak, hirugarrena, mobilizatuz gero, libro gelditzen zela. Nik bi anaia nituen frentean: bat, zaharrena erreketekin bolontari joana, eta «Tercio de Oriamendi»-n ibili zena, karlista baitzen. Bigarrena ez zen karlista, baina gure aitak bazuen Burgosen adiskide integrista handi bat, Aldekoa deituraz, gudalburu zena (ez naiz oroitzen komandante, koronel edo general zen), Guadalajarako frentean zegoena erreketen buru eta berehalaxe pentsatu zuen, mutilaren pausoak zaintzeko eta arima ez galtzeko, haren agindupean jartzea zela onena, eta horrela, nire anaiaren

kinta mobilizatu baino lehentxeago, bolontari sartu zen Aldekoa delakoarekin. Beraz, ni libro nintzen gerlara joate-tik Jaungoikoari eskerrak. Baina paperak egin eta librantza agiria etorri bitartean inkorporatu egin behar izan nuen eta Lizarrarako (Estellako) gudaletxera eramán ninduten. Han hamar-hamabost egun egin nituen gudaletxean eta librantza agiria etorri zelarik, etxera igorri ninduten, neure kinta-lagunak «Ebroko mataderora» eramán zituzten artean. Badut, beraz, zertaz Jaungoikoari eskerrak eman, zeren gerla berez txarra baldin bada, gogo-kontra egiten dena, norbere etsaien alde borrokatu beharraz, are txarra-goa baita.

Zergatik nobela giristinoak? Zer pisu izan du erlijio-ak zure bizitzan?

Jesukristo Gure Jaunaren miresle haundi bat naizelako. Jesus Jaunak eman zigun bizimodu etsenplua eta Berak erakutsi zigun dotrina harrigarrikoak dira. Gizonetan inor ez zaio hurbiltzen. Honetxek bakarrik frogatzen du bere Jaungoikotasuna. Nik Jaungoikoaren misterioan problema izugarri bat izan dut eta daukat. Alegia, Aita-Jaungoikoa sentitzen den baina ikusten ez den izaki misterio-tsu bat da. Mundua egin zuen Bera goza zedin munduaz eta —itxurak salatzen duenez— munduak sufri zezan. Bera Zeruko erresuman dago, goxo-goxo, zorionez beterik eta gizadia eta abeldia sufrimentuz eta oinazez mukurú mundu triste honetan, pobrearentzat, zapalduarentzat eta baztertuarentzat baitipat infernua besterik ez den negar-herri honetan. Pentsamendu honek izaki egoista baten ideia dakarkizu gogora eta Aita-Jaungoikoa ezin maitatuzkoa edo bederen maitagaitza egiten zaigu. Jesus Jaunarekin, orde, alderantziz gertatzen da: munduan sufritzen duen gizonaz errukitzen da eta gizonen artera jaisten, gizonekin batera sufritzera eta sufrimendua nola eramán behar den erakustera, beti etsenpluarekin predikatuz eta hitz eder eta gardenen (sublimeen) bitartez gizonari itxaropena emanaz eta bere bizitza zoragarria gizadiaren alde eskainiz. Hau guzizkoa da. Gehiago ezin daiteke. Jesusen gizardiaganako amodioa neurritz gainekoa da eta hainbeste

maite gaituen Jesus Jauna, guk ere ezin dezakegu maitatu, maitatu eta maitatu baizik, Jesus da gizadiaren itxaropen bakarra, gure zerurako giltza, gure zorionaren bide bakarra. Beraz, maita dezagun Jesus Jauna eta otoi egin diezaiozun datorrela lehenbailehen mundu zital hau gobernatzera bere aingeru taldeekin, txiroa, ahula, dohakabea, zapaldua eta baztertua salbatzera gizon boteretsuen eta handikien hatzaparretatik. Hauxe da ene erlijioa: Jesus eta bere Ebanjelioa. Ez dut besterik.

Nolatan zure adiskidetasun sakona hain heterodoxoa zen jendearekin, zu hain ortodoxo izanik? Zergatik miresten dituzu Mirande eta Etxahun?

Aurrena argi jarri behar dena zure galderan ni «hain ortodoxo» ote naizen, katoliko ortodoxo alegia. Zu ohar-tuko zinen noski nik ez darabildala inoiz «katoliku» hitza neure buruaz mintzatzean edo neure elaberrien ezaugarri. *Joanak-Joan*-ek eta *Gorrotoa Lege*-k «Elaberri giristinoa» dakarte, ez, ordea, «Elaberri katolikua». Nik esango nuke «hereje samarra» ere banaizela puntu honetan. Ez dotri-naren aldetik, eta horretxegatik Eliza Katolikuaren baitan jarraitzen dut, Eliza Katolikuak giristinotasunaz jaso duen guztian. Beste eliza giristinoekin ere ados nago giristinotasunaz jaso duten guztian. Baina, kristau eliza guztiek ez ote dute beren gisa interpretatzen zenbait gauza? Hemen-dik dator bereiztasuna eta horrela, oker ez baldin banaiz, sortu dira mila edo bi mila (bi informazioak jaso baititut) giristino eliza baino gehiago munduan zehar. Beraz, giristino guztien batasunera iristeko, ez al litzateke konbeni-garri Eliza bakoitzak «giristino» izenari erasten dion «titu-lotxo» baztertzea, batasunaren kaltegarri direlako? Nik horixe egin dut. Eliza katolikuaren barne egonarren, ez dut sekula neure buruaz «katoliku» izena erabiltzen, kris-tautasunarentzat kaltegarri delakoan. Egin bezate giristi-no guziok nik egin dudana eta izenez bederen batuak gel-dituko gara Jesus Jaunaren seme-alaba guztiak. Pauso bat da eta ez txipia. Gero pauso berriak etorriko dira eta eme-ki-emeki giristino Eliza bakarrera helduko. Baina denok geure bereizitasunei eusten saiatzen bagara, batasuna ez

da sekula helduko. Eta gaurdaino horixe egiten dugu: makur dezatela burua besteek, egiaren jabe neu bainaiz. Bide txarretik gabiltza giristinoak (eta halaber eusko-abertzaleak) seta horrek gidaturik. Horrela, batasunaren bila joan beharrean, geroago eta zatitzenago ari gara. Eta guztiho- rren sustrai ezkutua harrokeria eta agindunahia besterik ez da.

Baina, Eliza Katolikuaren barne baldin banago ere, ez nago akort Batikanoarekin, hots, Eliza Ofizialak daraman politikarekin. Joan XXIII-garrenarekin esperantzaz bete nintzen Eliza Katolikuak aldaketa serio bat ekarriko ote zuen Ebanjelioaren izpirituan oso-osorik murgilduz eta bel- durrik gabe eskubidegabetuen postura hartuz. Hau hasi zen bide berriak idekitzen, Batikanoko II-garren Konzilioa alda- rrikatuz, baina bere Aita Saindutzak gutxi iraun zuen. Paulo VI-garrenak amaitu zuen Konzilioa, baina hainbestean ain- gura bota zuen eta ez zion jarraitu guk espero genuen aur- rerrabideari. Batzuek itxaropena zuten Joan Paulo I-goak Batikanoa irauliko zuela, Joan XXIII-garrenak hasera eman- dako lanari jarraipena emanaz, baina, oker ez banaiz, ha- mabost egun besterik egin gabe zendu zen edo —batzuek diotenez— zendu zuten. Joan Paulo II-garrenarekin, berriz, Pio XII-garrenaren garaietara edo atzerago iritxi gara. Beraz, ez dago dudarik gaur-gaurkoz elementu kontserbadoreek gehiago dezaketela Batikanoan aurrerazaleek baino eta gau- zak horrela, gure belaunaldiak ez dezake itxaropenik egin Jesus Jaunaren izpiritu ebanjelikua Batikano materializa- tuan sar dadin. Izpiritu hau, nire ustez, «Teología de la Li- beración»-en dago. Baina Batikanoak ez du begi onez ikus- ten Jesusen arnasa, izpiritua eta obrak aldarrikatzen dituen mugimendu berri hau. Guztihau dela-ta, ez ote naiz nerau ere hereje samarra Batikanoaren ikuspegian? Baina nik ez dut zalantzarik egiten Kristoren eta lehenengo giristinoen izpiritua «Teología»-ko sailean dagoela eta Batikanoak hauen postura hartu behar duela lehenbailehen.

Adiskidetasun sakona berriz bi heterodoxoekin izan dut: Jon Mirande (jentila edo paganoa) eta Txomin Pei- llen (ateoa). Eta zergatik ez? Guztiz naturala iruditzen zait edozein giristinok (katolikuak barne) heterodoxoekin

adiskidetasuna edukitzea, heterodoxoek giristinoekin (katoliku eta ez katolikuekin) edukitzea bezala. Jesus Jaunak ere ideia guztitako jendearekin zituen adiskidetasunak, fariseoekin (orduko ortodoxoak) eta publikanoekin. Adiskidetasun minena berriz jende apalarekin, zapalduarekin, ahularekin, baztertuarekin. Gogoan har arrantzale bat, Jaun-doni-Petri, hautatu zuela bere ordeiz Elizaren buruzagi izateko. Izan ere, denok baikara Jaungoikoaren semeak, eta inor baztertzekotan, Jesus Jaunak baztertuko ditu Judizio egunean.

Beharbada zuk pentsatuko duzu: Jon Mirande biraoti bat zen, Jesukristo Gure Jauna madarikatu baitzuen harako hitz ikaragarri haietan: «Gaur, Judu-seme, gutartera itzul bazinde, gurutzifika zindezaket nik oster!» (*Ohiko Jainkoari*). Hau ikaragarria da eta gure har-emanak ia hautsi ziren giristinoentzat birao huts den poesia honegatik. Are gehiago: Jon Mirandek bere poesi bilduma igorri zidan, Euskalerrian argitaratzen saiatzeko eske eginaz. Euren artean *Ohiko Jainkoari* zegoen. Nik berehalaxe gutun bat egin nion bere olerki-liburua argitaratzen saiatzea nahi baldin bazuen, otoi, erretira zezala bere bildumatik *Ohiko Jainkoari*, zeren-eta giristino batentzat ezinezkoa zela halako lan batean parte hartzea. Jon Mirandek ez zuen nahi izan eta nik orijinala itzuli nion. Orduan pentsatu nuen honekin dena amaitu zela gure artean, zeren bera niri mesedeak egin eta egin ari zen bitartean, *Etxahunen bertsoak gipuzkeraz* argitaratzeko behar nituen argitasun eta xehetasun guziak emanaz Zuberoako euskarari buruz, nik, ezinbesteko eskergabekeriaz, bere lehenengo eskabideari uko egin nion. Baina, halakoan, bere eskutitz bat jasotzen nuen, nire postura ulertzen zuela aditzera emanaz eta lasai jarrai nezakeela Etxahuni buruzko galderak egiten lehenago bezala, atsegin handiz lagunduko ninduela eta. Horrelaxe, nire lan luzea amaitu arte bere laguntza osoa izan nuen. Jokabide honek bihotz-ukitu ninduen eta konaturatu nintzen zeinen bihotz handia zuen Jon Mirandek. Bera jentila eta antikristaua zelarik, giristino asko baino hobeki portatu zen nirekin. Geroztik, egunoro-egunoro hasi nintzen Jesus Jaunari bere alde eskatzen (eta oraindik

ere eskatzen diot eta bizi naizen arte eskatuko diot bere arimaren alde). Alegia, Bere hiltzaileei bezala, barka diezaiola Jon Miranderi ere, zeren haiek bezala, ez baitzekien zer egiten edo zer esaten zuen. Eta espero dut, Jesus Jau-nak bere hiltzaileentzat barkapena eskatu zion bezala bere Aitari, Jon Miranderentzat ere halaber eskatuko diola eta lortuko. Horra ba, zergatik miresten dudan Jon Mirande: bere bihotz handiagatik eta bere lagun-hurkoaganako amodioagatik. Aski zen zernahi gauza eskatzea, bere partetik ahal zuena egiten saiatzeko. Egia esan, zerbitzari desinteresatuagorik ez dut ezagutu. *Etxahunen bertsoak gipuzkeraz* argitaratuta gero, irabazpide batzuk izan zirela eta, dirua eskaini nionean, ez zuen hartu gura izan, eta bor-xatu behar izan nuen hortara.

Etxahun, ostera, dohakabe bat eta oso nortasun bereiziko gizona zelako miresten dut eta mundu honetan sufritzen duten pertsona guziak, baitipat behartsuak, zapalduak eta baztertuak neure bihotz justiziaz egarritua urratzen eta erdibitzen dutelako. Jesus Jaunak esan zuen bezalatsu, horientzat izan bedi bereiziki Zeruko Erresuma. Gainerakoan, Etxahun ez zen heterodoxoa. Gehieneko ere antiklerikala kaso batzurretan, apezek, bere ustez, gaizki jokatzeko zutenean. Baina Musde Tiraz eta Musde Zennartzo (Schmarsow) kritikatu eta jorratu zituen bezala, Sarrantzeko fraideei «aphez saintik» (apez sainduak) deitzen die eta bere zahartzarora oso jaierratsa izan zen «amust oroz» (hamabostoro) Jaunartuz eta haurrei dotri-na erakutsiz, nahiz eta politikan ezkertiar izan. Beraz, nortasun handiko pertsona genuen gure Etxahun.

Egindakoak berregin eta behin eta berriro zuzentzen dituzu. Zergatik perfekzio gogo areagotu hori?

Ni sekula ez naiz asebetetzen egindako lanarekin. Beharbada barruan daramadan inferioritate konplexuak eragiten dit horretara. Ni sobra konturatzen naiz ez naizela gizon argia, beste erdi mailakoen azpitik nagoela (gogoan har marianistetan eta jesuitetan beti azkenetakoa nintzela) eta horretxegatik nire lanak itxurazkoak izateko bizpahiru edo hiruzpalau aldiz izkiriatu behar ditudala. Eta

arrazoirik ez zait falta, zeren *Joanak-Joan* iratzi nuenean lehendabizikoz, esate baterako, iruditu zitzaidan lan polita egin nuela, batez ere aldi hartako kritikaren arabera (liburua Euskaltzaindiak saritua izan zen). Baina urte mordoska pasata gero irakurri nuelarik, nire obra txarra zela iruditu zitzaidan eta zegoen hartan ezin zitekeela bigarren ediziorik atera, obra agortua egonarren. Beraz, sakonki estudiatu nuen nire langaia eta hiruzpalau urte jo eta ke saiatu ondoren, bigarren edizioa atera zen. Lehendabiziko edizioa ona zela uste zutenek, aski dute bigarrenarekin konpara eta baitipat hirugarrenarekin eta ikusiko dute zeinen txarra, eskasa eta pobrea den lehendabiziko edizioa. Baina bigarrenarekin ere ez nuen etsi, hutsegite nabarmenak aurkitu nizkiolako eta hirugarren aldiz izkiriatu nuen. Horrela, nire obra guziak edizio batetik bestera hobe ditut eta ez zait behin ere damutu eraberritzen galdu edo erabili dudan denboragatik. Badakit, eraberritzen denbora pasa beharrean obra berriak egiten jardun izan banintz franko obra gehiago iratziko nuela, baina denak txarrak eta kaskarrak lirateke eta euskaraz edo beste edozein hizkuntzatan hobe da obra gutxi eta onak eta ez asko eta txarrak. Iratzi gehiegi egiten da munduan eta batez ere Euskalerrian irakurlegoarekin konparatuta, baina erdia baino gehiago lastoa da, eta euskaraz bederen, hainbeste libururen emanaz, jendeak ez ditu irakurtzen. Gutxi eta ona argitaratuko balitz, ostera, jendeak gehiago irakurriko luke eta probetxu gehiago atera. Beraz, nire aholkua eta gomendapena da iskribari bakoitzak gauza gutxi eta haiek onak iskriba ditzala. Iskribariak erruz datoz gure atzetik, Jainkoari esker (gure belaunaldiko bategatik hamar, hogeit edo gehiago berri) eta guk egiten ez duguna haiek eginen dute. Honegatik eta ene zahartzaro kaskarrak (depresio jota) alimorik ematen ez didalako, ez dut ezer berririk iratzi asmo. Ni baino hobeak badatoz. Zertarako behar nau iadanik euskal-literaturak? Paso gazteei. Bestalde, nahikoa eta gehiegi badut BRSBAPen egiten ari naizen Etxahuni buruzko lan luze eta nekagarria amaitzen. Jaungoikoak emanen al dit osasuna, kemena eta argitasuna (lan zaila baita) burutu ahal izateko.

Zer deritzozu gaurko literaturak hartu duen ildoari?

Euskal-poesian, herrikoian eta landuan uste dut beste herrialdetako hizkuntzekin berdindu samarrik gaudela kalitatean. Hala ere ez dut uste gerla aitzinetik gai honetan aurrerapen handirik egin dugunik. Esaterako, gerla osteko, Aresti, Gandiaga edo Iratzeder, ez dira Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Elizanburu edo Etxepare baino hobeak. Denak dira oso onak, baina oso liferenteak. Nobelan berriz, lehengo pobretasunetik poliki-poliki atera nahian ari gara, baina salbuespen bat edo beste izan ezik, ez dugu nobela onik eta are gutxiago lehendabiziko kategoriakorik. Elaberrian, beste hizkuntzekin konparatuz, poesian baino askoz beherago gaude. Konparaketak eman diezaguke ideia bat gai honetan. Arestian *Joanak-Joan*-en hiru ediziokin egin dugu beroien balioak neurtzeko. Konpara dezagun orain beste euskal-nobela bat erdal-nobela batekin. Konparaketa hobeki egiteko, biak gai beretsuak darabiltenak hautatuko ditugu, biak Erdi Garaiko giroa oinarritzat dutenak. Euskarazkoa nire *Gorrotoa Lege* da, hau ere bi aldiz iskribatua, 1962-garren urtean Domingo Agirre nobela-saria irabazitakoa, euskal-nobelagintzan onenen artean sailkatua dagoena kritikaren arabera. Horra ba, konpara dezagun Zoé Oldenbourg-en *La pierre angulaire*-ekin (La piedra angular), lehendabiziko mailako obra bikainarekin. Non gelditzen da *Gorrotoa Lege*? Oso gibelean, oso atzean, nire usitez. Nik *Gorrotoa Lege* izkiriatu nuenean, edo berregin nuenean bederen, ezagutzen nuen obra hau eta bere sailean obrarik gailenena bezala iritzi nion eta haren goi-maila iritxi nahi izan nuen. Baina nahi eta ezin! Nire elaberria Zoé Oldenbourg-en obraren aldean enanu bat da. Eta honetara noa: *Gorrotoa Lege* elaberri ona izan daiteke euskal-alorrean (*Joanak Joan* bezala), baina ezin daiteke konpara, inondik ere, literatura unibertsaleko lehen mailako elaberri batekin. Eta hau gure edozein euskal-nobelez esan dezakegu: ez dugu literatura unibertsaleko lehenen mailako, lehendabiziko kategoriako elaberriekin konparatzekorik. Hauxe da egia.

Gure literaturaren eta batez ere nobelagintzaren pobretasun honek neure onetik ateratzen ninduen gaztetan

eta lehenbiziko mailako elaberririk ez genuela ikusirik eta ni horretarako gai ez izanik, esan nuen neure artean: bada, lehendabiziko mailako elaberri bat izango dik euskarak. Euskalerriko seme batek iskribatua eta euskal-gaiduna. Gaztelaniatik itzuliko diat, eta euskal-nobela jator baten itxura hartu arte landuko. Pentsatua neukan: egilea Pio Baroja eta elaberria *Las Inquietudes de Shanti Andía*. Nobela hau ikaragarri gustatzen zitzaidan edukinaren humanismoagatik eta XIX-garren mendeko geure kostaldeko marinelgoaren euskal-giroagatik. Itzuli nuen, beraz, eta nolabait ere konforme geratu nintzen neure lanarekin. *Itxaropena*-k bere «Kuliska Sorta»-n argitaratu zuen 1959-gn. urtean. Baina, handik urte mordoska batera bir-irakurri nuen, eta nire itzulpenak nik nahi nuen mailara heltzeko asko falta zuela iruditu zitzaidan. Beraz, nik nahi nuen bezala, euskal-nobela jatorraren itxura hartzeko (eta ez itzulpen usainekoa) berriz itzuli beharra zegoen. Eta ekin nion berriro itzulpen lanari. *Hordago*-k argitaratu zidan 1984-gn. urtean. Orain nire galdera hauxe da: Euskarak ba'al du azkenean bere lehendabiziko kategoriako elaberria? Lortu ote dut itzulpen kutsua erabat deuseztea? *Xanti Andiaren kezka*k euskal-nobela jatorren artean sailkatu ote dezakegu? Kritikak esan behar. Dena den, badugu Baroja euskaraz eta ez da gutxi. Baina noiz sortuko ote da Baroja euskalduna?

Bizitza merezi al du? Zer zentzu dauka zuretzat?

Oraintxe ikutu didazu trijeminoa, Etxarri adiskidea, hauxe baita nire puntu ahula. Ni neu, beti bizitzeko gogorik eta alimorik gabeko gizona izan naiz. Sekula ez dut bizi maite izan. Bizitza kastigu izugarri bat bezala kontsideratu izan dut beti eta gorrotatu izan dut. Ni zeharozko gizon inadaptatu bat naiz eta hala ere bizi egin behar. Izpiritu praktiko bat izan baneza, segurki aisago adaptatuko nintzateke bizi beharrera. Baina, ameslari bat izanik, delinente eta saltzaile bezala atera behar izan nuen bizi, nire denboretan ez baitzegoen euskararen lepotik bizitzerik. Hogeitamar urte lan egin behar izan nuen Agente Comercial bezala eta ofizio honek gorakoak ematen zizkidan.

Ateraldi bakoitza, probintzian zehar, axanpa izugarri bat zen niretzat eta horrela bizi-beharrera ezin nintzen ohitu. Baina gaitz hau txipitandik zetorkidan, zeren marianisten eta jesuiten ikastetxetara joatea ere tortura bat baitzen niretzat eta Institutoko azterpenaldiak axanpa batean pasatzen nituen. Areago: ezaguera nuen ordutik ez nuen bizia maite, zeren etxean beti kastigatua bainengoen, hau dela edo hura dela. Lurrean belauniko kastigatua noiz-nahi, belauniko eta hitzik egin gabe bazkaldu beharra otorduan, gela ilunean preso... Nik ez dut aita juzgatu nahi berari beharrezkoa zerizkion edukazio espartar honetaz —Jaungoikoak libra nazala inor juzgatzez eta are gutxiago ene gurasoak—, baina, esan bezala, bizia hain zen garratza niretzat, txipi-txipitandik tristura ikaragarri batean murgildu ninduela. Ikastetxean ere, jolas-garaian txoko batean baztertuturik egoten nintzen, bakar-bakarrik, nire inferioritate konplexuak eraginda, zeren estudiatzen ez-ezik, jolasean ere, nire burua besteak baino gutxiagotzat bainean. Jesuitetan izan nuen ikaskide bat beti farre eta burla ari zitzaidana eta deitura burlagin bat ezarri zidana, nire moztasunaz baliatuz. Eta maiz gertatzen denez, halako horrek bazituen jarraitzaileak berarekin bat egiten zutenak. Baina banituen ere erruki ninduten eta maite ninduten lagunak. Beti izanen dira mundu honetan bihotz onekoak eta bihotz txarrekoak. Ni beti triste nengoen eta neure amak, arrazoiz, «el caballero de la triste figura» deitzen ninduen. Bizitza guzia depresiopean bizi izan naiz eta Jaungoikoari beti egiten nion galdera hauze zen: zergatik eman zidan bizia. Ezerezean primeran nengoen batere sufritu gabe eta jaioz geroztik sufritu besterik ez dut egin. Hamar senide izan gara eta ene aurrekoa bizpahiru hilabetez eraman zuen Berarengana. Eta nik galdetzen diot beti: zergatik hura eta ez ni? Hura, segurki, gizon argi eta bizkor bat izango zen eta zoriontsu biziko zen munduan, eta ni berri hemen nago sufrimendutan, bizitzeko balio ez dudalako. Beste mundurik ez bada, gizon ahulak hobe dizu ez jaio, zeren denetan azkena izatea izugarri triste eta umilagarria baita. Gure aitak, ez-izen askoren artean erabiltzen zuen bat «El último de todos» zen, baina mundu honetan

«el primero de todos» izatea tokatu zitzaion. Niri, berriz, «el último de todos» izatea tokatu zait eta ez nuke neure gogoz hautatuko horrela izatea. Gauza bat baita esatea eta bestea izatea.

Beraz, goizetan, ohetik jaikitzerakoan, depresioak gogorrenik astintzen nauenean, sarritan esaten dut: «Jauna, sekula ez dizut barkatuko bizia niri baimenik eskatu gabe eman didazulako. Ez zenuen horretarako eskubiderik. Hori ez da zuzena!». Birao izugarria! Jaunak barkatuko ahal dit! Oheratzekoan, ordea, edo beste momentu batez, ene izpiritua sosegaturik dagoenean, honela esaten diot: «Jauna, nik ez dut zuk emandako bizia maite; ezin dut! Baina, zure borondatea horrela baldin bada, onartzen dut zuk emandako bizia. Egin bedi zure borondatea eta ez nirea». Ni, aitaren erakuspideari jarraiki —beti erakutsi baitzigun esker-onekoak izaten, zeren esker txarreko gizona baino monstu handiagorik ez omen da—, beti saiatu izan naiz esker onekoa izaten Jaungoikoarekin eta gizonekin, baina, hala ere, oraindik ez dut lortu Jaungoikoari eskerrak ematea bizia eman zidalako. Ene heriotzeko orduan edo ahal bada lehenago, iritxiko ahal dit garazia hau!

Beraz, merezi ote du bizitzea? Beste mundurik ez badago: ez! Beste mundu bat baldin bada, edo hobeki esan, bi mundu, zerua eta infernua eta 100-eko 99-a baino askoz gehiago kondentatzen baldin bada —gure gaztetan jesuitek gogo-jardunetan erakusten ziguten bezala, katoliku zuzenak bakarrik salbatzen baitira eta beste gizadi guztia infernurako baita, zeren katoliku ez direnak ezin baitira salbatu pertsonarik onenak izanarren—, ez du ere jaiotzea merezi.

Lerro hauek izkiriatu ondoren, Etienne Lapeyre (1840-1893) Azkaingar jaun apezaren *Kredo edo sinhesten dut esplikaturia* liburu zoragarria irakurri dut eta beronek dioenez seigarren kapituluan («Elizaz kanpo ez da salbamendurik»), katolikoak bakarrik salba daitezkeela ez da egia osoa Eliz-Ama-Saindu Katolikoaren iritzian. Hona xeheki nola den auzi hau: Eliza Katolikoaz kanpo salbamedurik ez dela sustengatzeko, San Jeronimoren hitz hauek aipatzen ditu, besteak beste: «Ez dezazuela uste izan, Jain-

koa Aitatzat izanen duzuela, ez baduzue Eliza Amatzat», eta «Hola nola, urholdean hondatuak izan baitziren, Noeren untzian ez ziren guziak, gisa berean dire galtzen Eliza egiazkoan ez diren guziak».

Ondoren dio, jendeak pentsa dezakeela erakuspen hori gogorra eta ikaragarria dela. Nola izan daiteke ona horrela obratzen duen Jainkoa? Zer? Kondenatuak, infernurat joatekoak direla, Eliza Katolikoan sortuak eta baitaiatuak ez diren guziak? Kondenatuak ere Protestanteen eta Zismatikoan artean haziak, erakutsia izan zaioten Erlesioari fede onez lotu zaiotenak?

Bainan, ez; ez du sekulan Elizak holakorik erakutsi. Horrela mintzo direnak, gezurrez ari dira, edo ez dute Elizaren erakuspina ezagutzen. Jainkoa justua bezain ona da eta ez da inor galdua izanen, norbere faltaz ez bada. Hona zer dioen Elizak: Norbait baldin badago Elizaz kanpo bere faltaz, dakielarik gezurrean dagoela, edo bederen seriooki dudatzen duelarik, nagitasun eta axolakabetasun errudun batez, egia bilatzeko lehia eskasez, berak hala nahi duela-ko Eliza katolikoaz kanpo, gauza premiatsu horretaz argitua nahi izan gabe, *hura ez daitekeela izan salbatua*. Hone-raino Aita Lapeyre.

Beste mundu bat bakarra baldin bada, hots, «Jaunaren Erresuma» eta denok salbatzen baldin bagara, nik espero dudan bezala, zeren Jesus Jaunaren errukia azkengabea baita eta dena dezake bekataria salba dadin, orduan, bai, merezi du jaiotzea, zeren gure neke eta oinaze guztiak gozapan eta zorion bihurtuko baitira hiltzen garen momentutik. Jose Artetxe ene adiskide on eta giristino handiak ere nik bezala uste zuen, alegia, gizaseme-emakumeak oro salbatuko direla, zeren mundu honetan bada nahiko infernu eta Jaungoikoak gizona zerurako egin zuen. Horregatik jaitsi zen Jesukristo Gure Jauna mundura: bere odol amodiozkoaren bitartez mundu guzia salbatzeko. Horrek ez du esan gura, ordea, garbitoki bat ez dagoenik gure bekatuak ordaintzeko. Baina, dudarik ez da, infernuko bildurra sartzeko, jesuitek beren gogo-jardunetan kon-tatzen zizkiguten arima kondenatuen agerpenak, fede oneko asmamenak zirela. Ipuin hauek, ordea, ez zebiltzen

jesuiten artean bakarrik, aldi hartako katolikutasun-integristan zeharo normala baitzen. Adigarri bezala konta dezagun 8 urteko haur kondenatuaren historia edo «ixtorioa», bekatu larri bat bakarra egin zuelako bere bizian. Kontaera hau buruan josita eraman dut nire bizitza guttian, halako zirrara egin baitzidan. Eta horra, nondik eta nola inprintako letretan aurkitu ipuin hau euskaraz. Aita Frantzisko Ondarrak *Fontes* aldizkarian argitaratu zuen izenburu honekintxe: «Escritos en vascuence del P. Esteban de Adoain (1808-1880)». Bazekiten, bai, garai haietako apezek infernuko bildurra nola sar jendeari. Eta segurki, federik onenaz kontatzen zuten, egiarik handiena baitlizen. Hona, bada, Aita Esteban Adoaingoaren kontaera bere euskaran, kanonizatu zain dagoen Aita Kaputxino nafarra: «Maria Saindua agertu zitzaion —Benita zeritzan Florenziako bekatari ohiari—, eta erran zion barkatuak zirela bekatu guziak; baina beti oroitzeko bekatuez, Jaungoikoaren miserikordiaz, pasione sainduaz, eta oroitzeko ezen anitz bekatu gutiangoekin infernura joan zirela, eta erran zion egun artan berean zortzi urteko aur batek infernura joan bear zuela bekatu baten gatik».

Eta buka dezagun Jaun doni Pauloren hitz esperantzagarri eta zoragarri hauekin: «Ez du, ez begik ikusi, ez belarrik entzun, ez bihotzek sumatu, Jainkoak prestatu rik daukana Bera maite dutenentzat». Honela bakarrik uste dut biziak merezi duela bizitzea.

Zer garrantzi dauka itzulpengintzak zuretzat?

Izugarria, lehendabiziko mailako obrez barautan gaudelako. Beraz, ez duguna euskaratu egin behar dugu. Saia gaitetzen, beraz, literatura unibertsaleko obrarik onenak itzultzen eta euskal-tankera jatorra ematen.

Zein lani ekiten ari zatazka orain? Hitz egiguzu eskuartean daukazun lanari buruz.

Bizi nadin artean ez dut asmorik lan berri bati ekiteko. Aspertu eta nekatu naiz eta ez dut ezertarako ilusiorik. Aski dut neure depresioekin. Gazteek lan egin dezatela. Orain euskarak ez du nire beharrik, denborak aldatu baiti-

ra. Horixe bai, Etxahuni buruz egiten ari naizen lan izugarria (ezagutzen duzue *Amigos del País*-en Buletinetik) amaitu nahi nuke, baina ez dakit kemenik izango ote duan. Gainerakoan, neure obra agortuen edizio berriak ateratzen saiatuko naiz, inprentako hutsegite bildurgarriak zuzenduz ahal hainbat. Ez dakizu nolako mina egiten daten inprentako hutsek, baitipat handiak direnean. Honetxegatik bakarrik ez nuke euskal-irazole izan gura. Nire obra bat bakarra ez dago sano. Horregatik Euskaltzaindiari eskatu nahi diot nire obra nagusien orijinalak gorde ditzala ni hildakoan, horrela, gerora bir-inprimatzen badira, nora jo eduki dezatela editorialek, zeren orain inprimaturik daudenak ez baidute balio edizio berriak egiteko. Bestela, badakigu: oraingo edizioen hutsen gain besteak. Gero ta okerrago.

Zein eragin izan du aitak zugaran? Asko eragin al zintuen?

Esan bezala, berak animatu eta bultzatu ninduen aurreneko pausoak ematen. Baina ez nuen aitaren biderik jarraitu. Hark gramatika lanari ekin zion, intelektuala baitzen, bere obrak gaztelaniaz izkiriatur, eta nik berriz, erromantiko samarra nintzen aldetik, euskal literaturari jo nion. Gure aitak obra bat bakarra iskribatu zuen euskaraz: *Telefonoaren sortze ta aurrerapena*. Beraz, obra teknikoa, ez literarioa. Nik berriz obra bakar bat gramatika gaiatz: «(E)za» *aditz erroa datiboko aditz-jokoetan autoretan zehar*. Alabaina, Etxahunen bertsoetan ere badira gramatika-gaiak.

Zure ideia politikoez zerbait esango al diguzu? Aditza dugu oso abertzalea zarela, baina partidu politiko abertzaleekin ez zarela ezkontzen. Egia al da?

Bai, zerorrek esan bezala, egia borobila. Zer nahi duzu? Ez baita partidu politiku bat bakarra nire ideiak biltzen dituenik. Ni pertsona konplikatu samarra bainaiz eta zaku batean sartzen ditut abertzaletasuna, kristautasuna, komunismoa eta demokrazia. Abertzale osoa naiz. Beraz, ezin dezaket onartu foralismoan oinarritutako nazionalismoa, PNV-ek egiten duen bezala. Gure gaitzen oinarria ez

da bilatu behar 1839-ko, 1841-eko edo 1876-ko (Iparraldean 1789) lege zentralistetan. Postura hau partidu regionalista batentzat ongi da baina ez partidu nazionalista batentzat. «Jaungoikoa eta Lege zarrak» deritzan PNV-ren lema, zeharo regionalista da, aintzinako karlistek eta integristek erabiltzen zuten berbera: Dios y Fueros. Sabino Aranak hizkuntzaz aldatu zuen lema, baina gainerakoan aintzinako foruzaleen bideari jarraitu besterik ez zuen egin eta foruzaletasunean ezin daiteke nazionalismo sano bat oinarritu, zeren sekula ez baikara geure buruaren jabe oso izango eta Euskalerrriak zatiturik jarraituko baitu, eskualde bakoitza bere aldetik dabilelarik. Horrela ez dugu Euskadi sekula egingo, hots, euskaldunen batasuna nazio askatu batean.

Ez, gure gaitz guztien iturria ez dago aipatu aldi-mugetan, 1200-garren urtean baizik, Euskalerrriaren zatiketa edo desmenbrazioa hasi zen urte madarikatuan. Orduraino gure sei eskualdeek (Nafarroa, Lapurdi, Zuberoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) batasunean iraun zuten, Iruñeko Erregetzaren babesean eta agintaritzapean, eta berriz ere egoera zahar honetara itzuli behar dugu, Nafarroaren inguruan biltzea beste bost probintziak, Madrilekin eta Parisekin zer ikusirik eduki gabe. Hauxe da abertzaletasun sanoa eta gaur, nire ustez, Herri-Batasunak bakarrik jarraitzen duena. Nik erregu egingo nioke Karlos Garaikoetxeari, abertzaletasun sano hau har dezatela «Eusko Alkartasuna»-rentzat, bera, nafar bezala, iruditzen baitzait pertsonarik egokiena mugimendu honen buru jartzeko. Baina Foruei eta Sabino Aranari lotuak jarraitzen baldin badute, alderdi berri hau alfer-alferrrikakoa dugu. Euskalerrriarentzat ongarri izan beharrean kaltegarri izan daitekeena.

Besterik ere badago txit inportantea eusko-abertzaletasunarentzat. Larrioja (badirudi aintzina Larriolha zela) Euskadi da eta gureganatu behar dugu lehenbailehen. Aspaldi zaharrean euskal-lurraldea izan zen eta Nafarroako Erresumaren parte handi bat Larrioja zehar hedatzen zen, Nafarroako bigarren hiriburua Naxaran (Nájera) zegoelarik. Beraz, Larriojan partidu anexionista bat sortu behar da gure komunitate autonomoan sartzea lehiatuko dena.

Interes ekonomikoen aldetik ere Larriojari eta «Vascongadas»-i (Nafarroarekin batean) komeni zaie batasun hau. Beraz, Hegoaldeko bost probintzien hiriburua Iruñea izango litzateke. Baina ez da hori bakarrik: Herri-Batasunak, Euskadiko Ezkerrak eta Eusko Alkartasunak, beren alderdiak Larriojan eratzten hasi behar lukete, eskualde honetan eusko-abertzale taldeak osatuz. Euskal-deiturak eta toponimia oparo dauden lurraldetan, adibidez, Luguñu, Haro, Naxara, Larreiuri (Casalarreina), Ezkarai, Ozkabarte (Santo Domingo de la Calzada) eta abarretan abertzale sail politak egin daitezkeela uste dut. PNV-ri ez diot ezer esaten gai honetan, zeren uste baitut Sabino Aranak markatutako bidetatik ezin atera daitekeela, eta Larriojaren anexioa Abandoko Maisuaren buruan ez zegoenez, nire proposapenari baztergarri deritzaioke. Beraz, nire «Zazpiak Bat» Nafarroa, Lapurdi, Zuberoa, Larrioja, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa dira.

Bestalde, giristinoa, komunista eta demokrata naiz. Alegia, gizonen berdintasun osoa gura dut, hots, soldata bakarraren aldekoa naiz. Gizon guztiek berdin irabazi behar dute eta berdin bizi. Baina, komunismo marxista sasi-komunismoa besterik ez da. Gainera, libertatea eta demokrazia ukatzen duen komunismo diktatoriala baztergarri da niretzat. Libertatea oinarritzkoa da ene pentsamoldean. Badakit, herrialde sozialistetan dirua askoz hobeto zabaldua dagoela eskualde kapitalistetan baino. Hala ere, ez da aski. Ez dute politikoez eta militarrek, obreruek baino gehiago irabazteko eskubiderik, Rusian eta bere satelitetan gertatzen den bezala. Gizonen komunitateak, txingorrien eta erleen komunitateak hartu behar ditu eredu-tzat. Bakoitzak bere lanarekin eta eginbideekin kunpli dezala mundu honetan eta saria, bakoitzak merezi duena, beste munduan emanen zaio, Jaungoikoaren neurriaren arabera. Ez da morala nire ustez gizon intelijente baten lana gehiago baloratzea dirutan, ez-jakin batena baino. Biak dira beharrekoak eta Jaungoikoak bakoitzari bere lanbidea jarri dio. Gizon jakitunak, iaioak, argiak eta saiatsuak aski satisfazio, ordain eta sari badu bere kategoriarekin eta jendearen mirespenarekin langile jende arruntek eta alferrek

ez dutena. Eta atsegin izpiritualaz gainera materiala ere eman behar al zaio halakoari? Eta behartsuari berriz deus ez? Ez atsegin izpiritualik eta ez ez materialik? Hori ez da bidezkoa! Hori ez da Jaungoikoaren legea! Hori gizonaren egoismo nazkagarri bat besterik ez da! Ohoreak eta agintea aski dute halakook, diruak eta ondasunak oro eraman gabe. Utz bezate zerbait akaparadore handinahiok besterentzat eta adimendutan ezin denez gero, dirutan behintzat berdinduak izan daitezela gizonak, eta horretarako gobernaritza komunista sendo bat behar da gizartea berdintzeko, zeren gizonak ezer gutxi ematen baitu bere borondatez. Horregatik kendu egin behar zaio legearen indarrez. Bai! diot berriz ere, komunismorik radikalena behar dugu baldin munduan justiziarik ezagutuko baldin bada eta gizonen artean bakea eta zoriona izango bada. Denok pobre, bego!, baina denok beharrekoa osatzen dugularik eta inor ez miserian. Zoriontsuak izateko ez da aberastasunik behar. Zoriona izpirituan dago eta ez materian. Horregatik ez dut kapitalismorik nahi, baina ez eta ere libertatea eta demokrazia ukatzen dituen sasi-komunismo marxista, atea, eta materialista, beroiek aitortzen, errespetatzen eta sustengatzen dituen komunismo giristino berdinzalea baizik. Lehendabiziko giristinoak komunistak ziren. Dena eskuratzen zioten kristau-komunitateari eta honek denon artean berdín-zurrian zabaltzen zuen dirua, bakoitzak bizitzekoa eduki zezan. Giristino izpiritu horrek —heriotza beti gainean zutelarik— jazarpen aroan sendo iraun zuen, baina Constantino Handia enperadoreaz geroztik, 300 urtetako jazarpenen ondoren, triumfalismoaren ondorioz, galdu eta usteldu zen, zeren gizona mundu honetako ondasunei lotuegi baitago. Beraz, gizona emateko kapaz ez bada, legeak egin beza gizonak egin gura ez duen justizia. ♣